Antsoain BIM Ansoáin

Antsoaingo Udalaren informazio aldizkaria

Boletín de información Municipal de Ansoáin

2021 Otsaila - Febrero • nº 22.zka

## 2021ERAKO AURREKONTUAK

Joan den azaroko Osoko Bilkuran onartu zituzten Antsoaingo 2021eko aurrekontuak, EH Bilduren, Izquierda Ezkerra Podemosen, Geroa Bairen eta PSNren babesarekin. Kopurua % 3 handitu da, 9.456.677 euroraino. Hona hemen jasotzen dituzten ildo estrategiko nagusiak:

### ADINEKO BIZTANLEAK

25.000 euro bideratuko dira egungo diagnostiko prozesuan detektatutako adinekoen, mendekoen eta desgaitasunen bat dutenen beharrei erantzuten hasteko. Udalak, Osasun Zentroak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Osasun Mentaleko Zentroak elkarrekin lan eginez erantzungo diete behar horiei.

### BERDINTASUNA

Aurrekontuaren % 1 bideratu da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera eta indarkeria matxistaren aurkako borrokara, 2019an onartu zen Antsoaingo Berdintasun Ordenantzak jasotzen duen bezala.

### KALEAK GARBITZEA

51.600 euroko igoera garrantzitsua izan da kaleak garbitzeko kontratuaren hobekuntzaetarako; izan ere, lizitazioa aurten berrituko da.

### HAURREN PARKEAK

Haurren parkeen egoera aldian-aldian kontrolatzeko enpresa espezializatu bat kontratatzeko partida berria sartu da.

### UDALAREN KOMUNIKAZIOA

Partida bat onartu da, Udalak sare sozialetan dituen kanal ofizialen bidez herritarrei arreta eta erantzuna emateko zerbitzu berri bat kontratatzeko.

Jarraitzen du...

## PRESUPUESTOS PARA 2021

El pleno del pasado mes de noviembre aprobó los presupuestos de Ansoáin para 2021, que recibieron el apoyo de los grupos municipales de EH Bildu, Unidas Izquierda Ezkerra Podemos, Geroa Bai y PSN. Éstos aumentan su cuantía en un 3%, hasta los 9.456.677 euros. Aquí las principales líneas estratégicas que contienen:

### POBLACIÓN MAYOR

Se destinan 25.000 euros para comenzar a atender las necesidades de la población mayor, dependiente y personas con discapacidad detectadas en el proceso de diagnóstico actual, que serán desarrolladas en un trabajo conjunto entre Ayuntamiento, Centro de Salud, Mancomunidad de servicios sociales y Centro de Salud Mental.

### IGUALDAD

Se destina el 1% del presupuesto a la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres y a la lucha contra la violencia machista, tal y como recoge la ordenanza de Igualdad de Ansoáin aprobada en 2019.

### LIMPIEZA VIARIA

Importante incremento de 51.600 euros para la mejora del contrato de limpieza viaria, cuya licitación se renueva este año.

### PARQUES INFANTILES

Nueva partida destinada a la contratación de una empresa especializada para el control periódico del estado de los parques infantiles.

### COMUNICACIÓN MUNICIPAL

Se aprueba una partida para la contratación de un nuevo servicio de atención y respuesta a la ciudadanía a través de los canales oficiales del ayuntamiento en las redes sociales.



Continúa....

**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. Tirada: 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2021ko apirila – Próximo BIM: abril 2021)

**UDALERRIAN ARRATOIAK HILTZEA**
Partida handitzeari esker, hirukoiztu eginen da udalerrian arratoiak hiltzeko urteko jarduketen kopurua.

**USOEN GAINPOPULAZIOA**
2021ean, usoen populazioa kontrolatzeko ekimen iraunkorra abian jartzeko diru-sail berria jarri da.

**AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK**
2019ko aurrekontu parte-hartzaileen artean irabazi zuen Ezkaba Ikastetxeko patioa eraberritzeko proiektuak, eta 60.000 euroko aurrekontua egin da berriz ere, 2020an ezin izan baitzen obra gauzatu, pandemiaren ondorioz.

**IRAUNKORTASUNA**
8.400 euroko partida gaitu da Tokiko Agenda 21 bultzatzeko, aholkularitza tekniko espezializatu baten bidez.

**ETXEBIZITZEN BIRGAITZE ENERGETIKOA**
Berriz ere, 100 mila euro bideratuko dira zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonei laguntzeko, eraikinen inguratzaile termikoak hobetzeko Sustainivility proiektuaren barruan. Proiektu hori ere ezin izan zen garatu 2020an, pandemia egoeragatik.

**SALTOKI TXIKIEN DIGITALIZAZIOA**
10.000 euro bideratuko dira gai horretarako. Lehenik eta behin, Antsoaingo saltoki txikiek atal honetan dituzten beharrak detektatzeko erabiliko dira, eta, hasteko, behar horiek zein diren ezagutzeko azterlan bat eginen da.

**KONPETENTZIA DIGITALEI BURUZKO PRESTAKUNTZA** (biztanleentzat, oro har, eta zailtasun bereziak dituztenentzat, bereziki)
10.000 euroko partida bat sortu da, Antsoaingo biztanleek arlo horretan dituzten beharrak detektatzeko, horretarako egindako azterlan baten bidez.

**HIRI UDALEKUAK ETA LUDOTEKA, GURASOEK UDAN BATERATZEKO**
4.000 euro onartu dira urteko garai horretan, familiei bateragarritasuna erraztera bideratutako ekimenak abian jartzeko.

**UDAL LANGILEAK**
Oro har, soldatak % 0,9 igotzea aurreikusten da, 40.000 euro Udaltzaingoaren arloko soldata osagarrietarako zein gizarte segurantzari dagozkion kontzeptuetarako, eta zuzkidura ekonomiko handiagoa hainbat zerbitzutako langileen ordezkapenak estaltzeko.

**INBERTSIOAK**
2021eko aurrekontuetan 233.820 euroko inbertsioak aurreikusten dira, udal arloetatik eskatutako jarduketetan.

Gainera, 7.000 euro bideratuko dira pedal finkoen banku bat eta psikomotrizitateko beste bat erosteko eta jartzeko Iparraldeko Ingurabidearen ondoko

**DESRATIZACIÓN DEL MUNICIPIO**
Gracias al aumento en su partida, se van a triplicar el número de actuaciones anuales destinadas a la desratización del municipio.

**SOBREPOBLACIÓN DE PALOMAS**
Nueva partida económica para la puesta en marcha de una iniciativa de carácter sostenible, a lo largo de 2021, para el control de la población de palomas.

**PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS**
Se vuelven a presupuestar los 60.000 euros destinados a la reforma del patio del Colegio Ezkaba como proyecto ganador de los presupuestos participativos de 2019, que no pudo ser realizada en 2020 por la situación de pandemia.

**SOSTENIBILIDAD**
Se habilita una partida de 8.400 euros para el impulso de la Agenda Local 21 a través de una asesoría técnica especializada.

**REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DE VIVIENDAS**
Se vuelven a destinar 100 mil euros para apoyar a las personas en situación de vulnerabilidad económica dentro del proyecto Sustainivility para la mejora de envolventes térmicas de edificios, que tampoco se pudo desarrollar en 2020 por la situación de pandemia.

**DIGITALIZACIÓN DEL PEQUEÑO COMERCIO**
Se destinan 10.000 euros para esta materia, dirigidos en primer término a la detección de las necesidades que en este apartado tiene el pequeño comercio de Ansoáin a través de un estudio encargado al efecto.

**FORMACIÓN EN COMPETENCIAS DIGITALES** (Para la población en general y para personas con especiales dificultades en particular)
Se crea una partida de 10.000 euros, dirigidos en un primer término a la detección de las necesidades que en esa materia tiene la población de Ansoáin a través de un estudio encargado al efecto.

**COLONIAS URBANAS Y LUDOTECA PARA LA CONCILIACIÓN DE LAS FAMILIAS EN LA ÉPOCA ESTIVAL**
Se aprueban 4.000 euros para la puesta en marcha de estas iniciativas orientadas a la conciliación familiar en esa época del año.

**PERSONAL MUNICIPAL**
Se contempla el incremento general del 0,9% en los salarios, 40.000 euros para complementos salariales y conceptos de seguridad social en el área de Policía Municipal y una mayor dotación económica para la cobertura de sustituciones de personal en los diferentes servicios.

**INVERSIONES**
Los presupuestos 2021 contemplan inversiones por valor de 233.820 euros en actuaciones solicitadas desde las diferentes áreas municipales.

Además, se destinan 7.000 euros para la adquisición y colocación de un banco de pedales fijos y otro de psicomotricidad en la zona del paseo junto a la Ronda Norte y la colocación de 2 mesas de tenis fijas anti van-

Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016

pasealekuan. Horrekin batera, bandalismoaren aurkako 2 tenis mahai finko jarriko dira, Harrobi Gaztelekuaren ondoko eremuan. Bere garaian Udalak erositako saskibaloiko bi saski jarriko dira, Kirol Batzordeak zehaztuko duen tokian.

Aurrekontutik kanpo, Nafarroako Parlamentuan onartutako ezohiko Covid funtsaren bidez inbertsioak egitea aurreikusten da, eta Antsoainek 200 mila euro jaso ditu. Gainera, Diruzaintzako gerakina erabiliz ere inbertsioak egin ahal izanen dira, buletin honetako beste atal batean azaltzen den bezala.

dálicas en la zona junto a la Casa de la Juventud. Se procederá también a la colocación de dos canastas de baloncesto adquiridas en su día por el ayuntamiento en ubicación a determinar en la comisión de deporte.

Al margen del presupuesto, se prevén inversiones a través del fondo extraordinario Covid aprobado en el Parlamento Navarro, del que Ansoáin ha recibido 200 mil euros. Además, se podrán realizar también inversiones vía utilización del remanente de tesorería, tal y como se explica en otro apartado de este boletín.



## INBERTSIOAK ETA 2021ERAKO AURREIKUSITAKO BESTE JARDUKETA BATZUK

2021erako aurrekontuak alde batera utzita, Antsoaingo Udalak hainbat arlotako inbertsioak eta jarduketak aurreikusi ditu urte honetarako, bai Nafarroako Parlamentuak onartutako ezohiko Covid funtsaren bidez (Antsoainek 200.000 euro jaso ditu), bai Diruzaintzako gure gerakin orokorra erabiliz (2019ko abenduaren 31n, 2.300.000 euro ingurukoa zen).

## INVERSIONES Y OTRAS ACTUACIONES PREVISTAS EN 2021

Al margen de los presupuestos para 2021, el ayuntamiento de Ansoáin tiene previstas para este año diferentes inversiones y actuaciones en varias materias, bien a través del fondo extraordinario Covid aprobado en el Parlamento Navarro, del que Ansoáin ha recibido 200.000 euros, o vía utilización de nuestro remanente general de tesorería, cuyo importe a 31 de diciembre de 2019 era de cerca de 2.300.000 euros.


Importantes descuentos
en tarifa y matrícula para hermanos
y familia numerosa
guardería
haurtzaindegia
lorea
información y matrículas de 16:00 a 17:00 h.
e-mail: guarderialorea@hotmail.es
paseo de los donantes de sangre nº 9, bajo
31015 pamplona-iruña tfno. 948 078 642
atendemos también por WhatsApp 622 80 75 49
www.guarderialorea.es

Peluquería Caballeros
ANSOÁIN
El mejor corte profesional
con más de 25 años de experiencia
y con el precio más económico
¡¡Prueba y verás!!
Caballeros 7€
Jubilados 6€
Niños 5€
SIN CITA PREVIA
C/ Divina Pastora, 11 bajo
Tfno. 697 205 023 - 693 590 408

## ANTSOAIN JASANGARRIA

### ZENTRO HIDROTERMALEKO GALDARA BERRITZEA

Idakiko instalazioetako beroa ekoizteko galdara berrituko da, eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta gehiago aurrezteko. Instalazioetan egindako iazko auditoretzaren emaitzek erakutsitakoari erantzunez gauzatu den ekintza izan da hau, eta, lehenengo urrats gisa, 12.500 euro onartu dira, galdara jartzeko behar den ingeniaritza proiektua egiteko.

### ENERGIA-ERAGINKORTASUNA HOBETZEA EZKABA IKASTETXE PUBLIKOAN

6.000 eurotik gorako inbertsioa aurreikusten da, zentroko erradiadore guztietan balbula termostatikoak jartzeko, eraikinaren berokuntzan energia kontsumoaren kontrola eta optimizazioa areagotzeko.

### HIRI-MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLAN BERRIA

Urtarrileko Osoko Bilkuran, 18.000 euroko zuzkidura onartu zen, Antsoaingo Hiri Mugikortasun Iraunkorreko lehen Plana egiteko. Plan hori tresna garrantzitsua izanen da, datozen hilabete eta urteetan gure udalerrian mugikortasun iraunkorragoa lortzeko aurrerapausoak emateko.

### IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO BI PUNTU INSTALATZEA

2021ean 20.000 euro aurreikusi dira ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi gune instalatzeko, Udalak 2021ean egin nahi duen Mugikortasun Iraunkorreko Planaren esparruan.

### ANTSOAINGO APARKALEKUEI BURUZKO AZTERKETA

Aholkularitza enpresa espezializatu batek Antsoaingo aparkalekuei buruzko azterketa bat egin du azken asteotan, egungo errealitatea eta Iruñeak Txantrean gune urdina behin betiko ezartzeko eta Rotxapea osora zabaltzeko aurreikuspena kontuan hartuta.

## ANTSOAIN IRISGARRIA

### IRISGARRITASUNAREN ARLOAN JARDUTEKO PLAN OROKOR BAT EGITEA

30.000 euroko gastua aurreikusi da mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasunaren arloan udalerrirako ekintza plan orokor bat egiteko, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

### KIROL INSTALAZIOEN SARBIDEAK HOBETZEA

2021ean, 30.000 euroko inbertsioak eginen dira oztopoak kentzeko eta gure kirol instalazioetan mugikortasun murriztua duten pertsonen joan-etorriak erraztuko dituzten neurriak ezartzeko, Udalak 2020an egindako Antsoaingo Kirol Instalazioen I. Gida Planaren esparruan. Plan horren garapena, ekintzen epeak eta balio ekonomikoak definitu behar dira datozen hilabeteetan.

## ANSOÁIN SOSTENIBLE

### RENOVACIÓN DE LA CALDERA DEL CENTRO HIDROTERMAL

Se va a renovar la caldera de producción de calor de las instalaciones de Idaki, con el objetivo de mejorar su eficiencia energética y conseguir un mayor ahorro. Esta actuación forma parte de las acciones a desarrollar como consecuencia de la auditoría energética de las instalaciones realizada el pasado año. Como primer paso se han aprobado 12.500 euros para la elaboración del proyecto de ingeniería necesario.

### MEJORA DE LA EFICIENCIA ENERGÉTICA EN EL COLEGIO PÚBLICO EZKABA

Se prevé una inversión superior a 6.000 euros para la colocación de válvulas termostáticas en todos los radiadores del centro, para aumentar el control y optimización del consumo energético en la calefacción del edificio.

### NUEVO PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE

En el pleno de enero se ha aprobado una dotación de 18.000 euros para la elaboración del primer Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Ansoáin, que será una importante herramienta para avanzar en los próximos meses y años hacia una movilidad más sostenible en nuestro municipio.

### INSTALACIÓN DE DOS PUNTOS DE RECARGA DE VEHÍCULOS ELÉCTRICOS

Durante 2021 están previstos 20.000 euros para la instalación de dos puntos de recarga de vehículos eléctricos, en el marco del citado Plan de Movilidad Sostenible que el ayuntamiento pretende elaborar en 2021.

### ESTUDIO SOBRE EL APARCAMIENTO EN ANSOÁIN

A través de una consultora especializada se ha realizado ya durante las últimas semanas un estudio sobre el aparcamiento en Ansoáin, teniendo en cuenta su realidad actual y la previsión de que Pamplona instaure definitivamente la zona azul en Txantrea y la extienda a toda la Rotxapea.

## ANSOÁIN ACCESIBLE

### ELABORACIÓN DE UN PLAN DE ACTUACIÓN GENERAL EN MATERIA DE ACCESIBILIDAD

Está previsto un gasto de 30.000 euros para la elaboración de un plan general de acción para el municipio en materia de accesibilidad de las personas con dificultades de movilidad, tal y como está previsto en la disposición adicional segunda de la Ley Foral 12/2018 de 14 de junio, de Accesibilidad Universal.

### MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DE INSTALACIONES DEPORTIVAS

En 2021 se van a realizar inversiones por valor de 30.000 euros para la eliminación de obstáculos y la implantación de medidas que faciliten los desplazamientos de personas con movilidad reducida en nuestras instalaciones deportivas, en el marco del I Plan Director de Instalaciones Deportivas de Ansoáin elaborado por el ayuntamiento en 2020, cuyo desarrollo y acciones se deben definir temporal y económicamente a lo largo de los próximos meses.

### EZKABA MENDIKO BIDEA HOBETZEA
Artzaintsa Jainkotiarra kalearen ondoko pasabidetik Ezkaba Mendiko biderako sarbidea hobetzeko 5.000 euroko jarduketa aurreikusia dago.

### HAURREN PARKEAK
### LURZORUAK BERRITZEA
2021ean, herriko haurren parke guztietako zoruak berrituko dira.

### HAURREN PARKERAKO ESTALKIA
Rafael Alberti plazan dagoen parkea estaliko da.

### MEJORA DEL ACCESO AL MONTE EZKABA
Actuación dotada con 5.000 euros para mejorar el acceso al camino del Monte Ezkaba desde la pasarela junto a la calle Divina Pastora.

### PARQUES INFANTILES
### RENOVACIÓN DE SUELOS
A lo largo de 2021 se van a renovar los suelos de todos los parques infantiles de la localidad.

### CUBIERTA PARA PARQUE INFANTIL
Se prevé cubrir el parque infantil situado en plaza Rafael Alberti.

## JOAQUÍN SANZ SANGORRINEN OROIMENEZ
Duela gutxi hil zen gure bizilagun Joaquin Sanz Sangorrin. Sukaldari gisa, Joaquinek Antsoaingo Egunean ospatzen den potxada herrikoia egiten lagundu zuen; eta, merkatari antsoaindarra izanik, herriko Udala eta Merkatarien Elkartea biltzen diren merkataritza-mahaian ere parte hartu zuen. Ekineko pertsona izan zen, herri honi ekarpenak egiteko beti prest zegoena, eta Antsoaingo Udalak bat egiten du haren galeraren minarekin. Hitz hauek zuretzako omenaldi izatearekin batera, izan zinen pertsonarekiko eskertze izan nahi dute, zure senitartekoei saminean laguntasuna adierazteaz bat.



## EN MEMORIA DE JOAQUÍN SANZ SANGORRIN
Recientemente falleció nuestro vecino Joaquín Sanz Sangorrin. En su faceta de cocinero, Joaquín colaboró activamente durante años en la elaboración de la pochada popular que se celebra en el Día de Ansoáin. Como comerciante antsoaindarra, formó parte de la mesa del comercio en la que se reúnen el Ayuntamiento y la Asociación de Comerciantes de nuestra localidad. Persona activa y siempre dispuesta a aportar para este pueblo, desde el Ayuntamiento de Ansoáin nos unimos al dolor por la pérdida de Joaquín. Sirvan estas palabras como homenaje y agradecimiento a su persona y para enviar a su familia el pésame más cariñoso y sincero de este consistorio.



## NOAIN ANAIEN KALEKO APARKALEKU PLAZAK ALDATZEA




Duela gutxi, Noain Anaien kaleko 7. zenbakiaren parean dauden zenbait aparkaleku aldatu dira. Mugikortasun mugatuko pertsonentzat dauden bi plazak egokitu eta hobetu dira, aparkaldi mugatuko hiru plaza berri sortzearekin batera. Erreformaren helburua bikoitza da: batetik, mugikortasun arazoak dituztenen plazak dagokien ibilgailuek bakarrik erabiltzea. Bestetik, denbora muga duten hiru aparkalekuek iraupen laburreko geldialdietarako balio izatea, horretarako ezarritako ordutegian (gehienez ordu erdiz).

Era berean, mugikortasun mugak dituztenen udalerriko aparkatzeko plaza guztietan, seinale berezi bat jarri da, plaza horiek behar bezala erabiltzen ez dituzten gidariak ohartarazteko. Seinaleak gogorarazten du pertsona horien tokian jarri behar dugula, inoiz ez beren lekuan. Udaltzaingoa arduratzen da plaza berezi horien erabilera desegokia zigortzeaz.

## MODIFICACIÓN DE PLAZAS DE APARCAMIENTO EN HERMANOS NOÁIN

Recientemente han sido modificadas varias plazas de aparcamiento situadas frente al Nº7 de la calle Hermanos Noáin. La actuación ha consistido en la adecuación y mejora de la señalización de las dos plazas existentes para personas con movilidad reducida y la creación de tres nuevas plazas de estacionamiento limitado. El objetivo de la reforma es doble. Por un lado, evitar que las plazas para personas con dificultades de movilidad sean ocupadas por vehículos que las utilizan incorrectamente. Por otro, que las tres plazas de aparcamiento limitado creadas sirvan para paradas de corta duración (máximo ½ hora) en el horario establecido para ello.

A su vez, se ha colocado en todas las plazas de aparcamiento para personas con limitaciones de movilidad existentes en el municipio una señal especial para sensibilizar sobre el uso incorrecto de estos espacios por parte de conductores y conductoras. La señal recuerda que debemos ponernos en el lugar de estas personas, nunca en su sitio. Policía Municipal es la encargada de sancionar la inadecuada utilización de estas plazas especiales.

## HARROBI GAZTELEKUA



Kaixo Antsoain!

Ezer idazten hasi baino lehen, Olentzero eguna posible egin zuten lagun guztiei eskerrak emango dizkiegu, eta nola ez, beti lan egiteko prest dauden gure Gazte Handiei! Zorionak denoi egindako lanagatik! Lan handia zegoen ikusi zenuten guztiaren atzean. Horretarako, Harrobin astero biltzen egon izan gara eta emaitza oso txukuna atera zaigu, ezta?



Bestetik, Harrobi apainduagoa dagoela kontatu behar dizuegu! Antsoainen artista ugari ditugu eta haietako batzuekin elkarlanean aritu gara beheko solairua kolorez betetzeko. Harrobik, gazteek proposaturiko ekimenak aurrera eramatea du helburu eta, kasu honetan, landutako ekintza Graffitiak egitea izan da.

HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoain

## CASA DE LA JUVENTUD HARROBI



Kaixo Antsoain!

Antes de escribir nada queremos dar las gracias a todas las personas que hicieron posible el día de Olentzero, y cómo no, a Gaztehandi, ¡Siempre dispuestas a trabajar! ¡Felicidades a todas las personas por todo el trabajo! Para lograr el resultado tan bonito que pudimos ver desde nuestras casas hubo un gran trabajo comunitario, ya que se metieron muchas horas las semanas anteriores en Harrobi.



Por otro lado, ¡Os contamos que Harrobi está lleno de color! En Antsoain contamos con muchos artistas y hemos estado trabajando con algunos de ellos para decorar el sótano del edificio. Harrobi busca promover iniciativas juveniles y en este caso la iniciativa ha sido relacionada con el arte urbano, realizando diferentes Graffitis.

## 2021KO ANTSOAINGO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEA

Antsoaingo Udalak aurrekontu parte-hartzailearen bosgarren edizioa jarri du martxan. Aurten, 60.000 euroko aurrekontu-partida bideratuko da Antsoaingo herritarrek proposatu eta aukeratutako proiektuetarako.

Antsoainen erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonek (2021ean betetzen dituztenak barne) eta Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta dauden herritarren elkarte edo erakundeek proposamenak egin ditzakete.

Bi eratako proposamenak egin daitezke: **obretakoak** (berriak edo mantentzekoak) edo **etengabeko eskuratzekoak edo inbertsiokoak.**

Proposamenak aurkezteko, Antsoaingo Udalaren bulegoetan eta webgunean eskuragarri dagoen berariazko inprimakia bete behar da.

Eskabideak aurkezteko epea **otsailaren 8an hasi eta martxoaren 5ean amaituko da**. Aurrez aurre aurkez daiteke, 08:30etik 14: 00etara, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan edo udaleko erregistro elektronikoaren bidez.

Proposamenak jaso ondoren, Partaidetza Batzordeak horietako bakoitzaren bideragarritasun teknikoari buruzko azterketa egingo du. Azterketa hori egin ondoren, hautatutako proposamenak jendaurrean aurkeztuko dira, herritarrek bozkatzeko.

Bozketa horren emaitza loteslea izango da Udalarentzat eta hautatutako proiektua edo proiektuak 2022an hasi beharko ditu.

### INFORMAZIO GEHIAGO

Oinarriak eta deialdiari buruzko dokumentazio guztia bulegoetan eta Udalaren webgunean (www.ansoain.es) eskura daitezke. Argibideren bat nahi izanez gero, deitu 948 133 410 telefonora edo idatzi parte hartzea@ansoain.es helbidera.

Animatu eta hartzazu parte!




## PRESUPUESTO PARTICIPATIVO DE ANSOÁIN 2021

El Ayuntamiento de Ansoáin ha puesto en marcha la quinta edición del presupuesto participativo. Este año, se destinará una partida presupuestaria de 60.000 euros para los proyectos propuestos y elegidos por la ciudadanía de Ansoáin.

Las personas empadronadas en Ansoáin, mayores de 16 años (incluidas las que los cumplen en el 2021), y las asociaciones o entidades ciudadanas inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones pueden hacer sus propuestas.

Se pueden realizar dos tipos de propuestas, de **obras** (nuevas o de mantenimiento) o de **adquisición permanente o de inversión**.

Para presentar las propuestas hay que cumplimentar el formulario específico que está a disposición tanto en las oficinas como en la web del Ayuntamiento de Ansoáin.

El **plazo de presentación** comenzará el día **8 de febrero** y finalizará el **5 de marzo**. Se puede presentar bien presencialmente, de 8:30 a 14:00 horas en el Servicio de Atención Ciudadana o a través del registro electrónico del Ayuntamiento.

Una vez recibidas las propuestas, la Comisión de Participación realizará un estudio de viabilidad técnica de cada una de ellas. Realizado este estudio, las propuestas seleccionadas se presentarán públicamente, para su valoración a través de votación por parte de la ciudadanía.

El resultado de esta votación será vinculante para el Ayuntamiento que deberá iniciar el proyecto o proyectos seleccionados durante el 2022.

### MÁS INFORMACIÓN

Las bases y toda la documentación relativa a la convocatoria están disponibles en las oficinas y en la web del Ayuntamiento www.ansoain.es. Para cualquier aclaración puedes llamar al 948 13 34 10 o escribir a participacion@ansoain.es.

Anímate y participa!



## NEURRIAK BETE, AMETSAK BETE

Zer sintonia izango du 2021ak? Antsoaingo Musika Eskolan kemen eta gogo handiz hasi gara aurten, eta ziur gaude, ikasturte hasieratik egin dugun bezala, pandemiak markatutako egoeretara egokituko garela. Musika partekatzen jarraituko dugu segurtasun-neurri guztiak betez eta ametsak betez, hala nola gure ikasleak ikasgelan eta agertokian aurrera egiten ikustea.

## CUMPLIR MEDIDAS, CUMPLIR SUEÑOS

¿A qué sonará el 2021? En la Escuela de Música de Ansoáin hemos comenzado este año con mucha energía y ganas, con la certeza de que nos adaptaremos a las circunstancias marcadas por la pandemia, como venimos haciendo desde el inicio del curso escolar. Seguiremos compartiendo música cumpliendo todas las medidas de seguridad y cumpliendo sueños, como el de ver avanzar a nuestro alumnado en clase y sobre el escenario.

## KATTALINGUNEREN AURKEZPENA

Antsoaingo Udalak hainbat topaketa antolatuko ditu KATTALINGUNErekin, zerbitzua ezagutzera emateko, sexu zein genero dibertsitateari ikusgaitasuna emateko, eta era berean, zerbitzuaren beharra duten pertsonak hartara erakartzen saiatzeko. Udaleko Gizarte Gaietarako, Bizikidetzarako eta Dibertsitaterako Alorra arduratu da, Berdintasun Alorrarekin batera.

Kattalingune Nafarroako Gobernuko LGTBI+ zerbitzu publikoa da, hau da, sexu eta genero aniztasunerako arreta eta informazio zerbitzua. Informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkie Nafarroa osoko LGTBI+ pertsonei, hurbilekoei eta profesionalei.

Aurkezpenak martxotik aurrera eginen dira eta, herritar guztientzat irekita egonen den hitzaldiaz gain, hainbat lansaio eginen dira udal profesionalekin, Gizarte Zerbitzuekin, ikastetxeekin, Harrobirekin, etab...

## PRESENTACIONES DE KATTALINGUNE

El Ayuntamiento de Ansoáin, a través del Área de Servicios Sociales, Diversidad y Convivencia y del Área de Igualdad, va a organizar varios encuentros con KATTALINGUNE con el objetivo de dar a conocer el servicio y visibilizar la diversidad sexual y de género, intentando además acercar el servicio a las personas que lo necesiten.

Kattalingune es el Servicio Público LGTBI+ de Gobierno de Navarra, Servicio de Atención a la Diversidad Sexual y de Género. Ofrece información, asesoramiento y acompañamiento a personas LGTBI+, personas allegadas y profesionales de toda Navarra.

Estas presentaciones se realizarán a partir de marzo, y, además de hacer una charla abierta a la ciudadanía, se trabajará con diferentes profesionales municipales, Servicios Sociales, Centros Educativos, Harrobi...

KATTALINGUNE
Servicio LGTB Zerbitzua

## MINTZAMENA, GENEROA ETA HEZKIDETZA ANTZERKIAREN BIDEZ LANTZEKO TAILERRAK



Euskara eta Berdintasun Zerbitzuek hainbat tailer antolatu dituzte, Ezkaba ikastetxearekin batera, Iñigo Aranbarri aktorearekin, euskarazko mintzamena lantzeko, emakumeen eta gizonen arteko edota neskatoen eta mutikoen arteko berdintasuna ardatz hartuta. Tailerrak lehen hezkuntzako 4. mailan eginen dira, martxoko lehen hamabostaldian.




Izan ere, jolasa, mugimendua, antzezpena eta ikus-entzunezko mezuak erabiliz, jaiotzean dugun sexuaren arabera esleitzen dizkiguten estereotipo eta rolei buruzko kontzientzia hartzea izanen da xedea; hori guztia gertatzen da, gainera, gutako bakoitzaren gustuak eta sentimenduak kontutan hartu gabe. Jolasa eta antzerkia lan tresna egokiak dira era dinamikoan ikasteko eta gozatzeko. Biak ere tailerrotan baliatuko ditugu hainbat kontzeptutara hurbiltzeko: errespetura, bazterkeriara, erantzunkidetasunera, eta autoestimura, besteak beste. Antzezpen eta rol jolasen bidez, komunikazio gaitasunak landuko dira, bai eta bestelako gaitasunak ere, hala nola enpatia eta talde lana.

